



2016KO AURREKONTUAREN MEMORIA

Esku artean daukagun dokumentuan, 2016rako Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak bere ekimen guztiak aurrera eraman ahal izateko erabilgarri izango duen aurrekontua zehazten da.

2016rako aurrekontu hau legegintzaldi berriaren hasieran eta lehendakari aldaketaren ondoren egindakoa izan arren, argi genuen aurretik zetozen zerbitzuen jarraitasuna bermatuko genuela. Gobernu Taldeak hasieratik hitz eman zuen moduan, Patronatuak Udalaren aldetik jasotako ekarpena ez da murriztu, are gehiago, gehitu egin da. Administrazioarentzat ekonomikoki garai zaila izanik ere, jakin badakigu jendartearentzat egoera zailagoa dela eta eskaintzen ditugun zerbitzuak ezinbestekoak direla.

Zaharren Egoitza eta Eguneko Zentroa Foru Aldundiaren eskumena izanik, beraien jabe egiteko prozesua martxan hasia badu ere, prozesuak aldaketak izan ditu eta Hernaniri dagokionean ez da ezer berririk aurreikusten datorren urterako. Egoera honek defizit handia suposatzen digu eta halaxe jakinarazi diegu Aldundiko arduradunei. Egoitzari dagokionean, plaza guztiak beteak daude; ez hala Eguneko Zentroaren kasuan. Gure betebeharra zerbitzu hauen funtzionamendu ona bermatzea da eta horretarako neurriak hartzea. Bide horretan, 2016rako gaueko zerbitzuan klinika laguntzaile bat gehiago jartzea erabaki dugu.

Egunero jende askok jartzen du konfiantza gudan beraien bizitzan sortzen zaizkien beharrei erantzuna ematen laguntzeko. Beharrezkoa da ematen dugun zerbitzua herrian sortzen diren beharrei egokitu egotea eta hori hala izateko gure zerbitzuetan behar diren aldaketak egitea.

Herrian osasunaren eta gizarte gaien inguruan lan egiten duten elkarte asko dago. Guk egiten dugun lana eta beraiek egiten dutena osagarriak dira eta askotan gu irits ezin gaitzkeen lekuetara iristea lortzen dute. Bide horretan eta euren jarduna ziurtatze aldera, haiei bideratutako diru-laguntzetan egindako inbertsioak ere jarraipena izango du.

Patronatuak zuzenean kontratatua duen langileriaren %1eko soldata igoera ere jasotzen du 2016ko aurrekontuak.

Azkenik, esan nahi dut Patronatuan modu batera edo bestera lan egiten duten pertsonen dedikazioak eta profesionaltasunak egiten dutela posible gure zerbitzuak kalitatezkoak izatea. Zuei denei, mila esker. Denon artean Hernani hobetzeko lanean ari gara.

Hernani, 2015eko azaroak 16

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Lehendakaria